

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

2021eko JEZaren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Nik, Eduardo Fernández de Pinedo Gonzálezek, Arabako Kuartangoko Udaleko alkateak,

Jakitera ematen dut: 2021eko abenduaren 1etik abenduaren 31ra arteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, hauei dagozkien 2021eko ordainagiriak:

– Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 2021.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banku erakundeen bidez kobratuko dira; helbideratuta ez dauden ordainagiriak, berriz, udal bulegoan ordaindu beharko dira.

Era berean, zergapekoei jakinarazten zaie ordainketa helbideratu ahal izango dutela banketxe eta aurrezki kutxen bidez, halaxe xedatzen baitu dirubilketari buruzko araudiak.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei premiamenduko beteazte bidez kobratuko zaizkie ordainagiriak, ehuneko 20ko errekaruarekin, halaxe xedatzen baitu aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatzu Kuartango, 2021eko azaroaren 15a

Alkatea

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO